

Gomendatutako liburua:

-Stelzer, Otto. "Arte y fotografía. Contactos, influencias y efectos". Gustavo Gili. Barcelona. 1981.

ARGAZKIGINTZA

Argazkigintzak, bere sorreratik, arte plastikoekin bide paralelo bat eraman zuen. Argazkilari asko eta asko, modalitate honetan jardun baino lehen margolariak eta marrazkilariak ziren. Argazkigintzak, pintura, erretratuentzako miniaturak eta liburu-irudiak ilustrazioak ordezkatzeko hasi zen.

Ezaguna da margolarien hasiera batean argazkigintzaren aurrean zuten interesa, esate baterako, Paul Delaroche eta Eugène Delacroix-en kasuak. Impresionismoa artistentzat argazkigintzaren erabilera oso inportantea zen. Adibidez, Manet-en "Maximiliano Enperadorearen exekuzioa" lana garaiko argazki serie batean oinarritzen zen. Bestalde Edgar Degas izango zen, dudarik gabe, argazkigintzaren ekarpen bisuala ondoen ulertuko zuena. Gauza bera gertatu zen post-impresionistekin (Gauguin, Cézanne eta Toulouse-Lautrec).

Lehen Mundu Gerra osteko lehenengo urteetan agertutako joera estetiko eta literarioak ia bere osotasunean Europan eman ziren. Garai horretan jaiotako mugimendu artistikoekin batera, artearen mugak lausotzen hasi ziren. Mugimendu abangoardisteei esker, argazkigintza ez zen dokumentu edo berragerpen tresna bezala ikusten, espresio plastiko modura baizik.

Futuristek argazkigintzara jo zuten mugimenduaren deskonposaketa lortzeko. Samos Bragaglia zegoeneko argazki futuristak egitera ausartu zen. Haren saiakuntzen ondoren, Fortunato Depero eta Luigi Veronesiren fotomuntaketak aurki daitezke, irudi gainjarriak eta fotogramak erabiliz egindakoak.

Kubismoak ere argazkigintzaren garapenean hartu zuen parte, batez ere Alvin Langdon Coburn-en eskutik. Sortzaile honek vortografiaren bidez argazkigintzarekin ariketa kubistak egin zituen.

Christian Schad dadaistak shadografiarekin egin zuen lan, lehendabiziko argazki abstraktuak egin zituen. Hark fotogramaren teknika collagearekin nahastu zuen. Dadaren mugimenduko artista askok gerora ere argazkigintzako teknikak erabili zituzten surrealismoan.

Bestaldetik, John Heartfield eta Raoul Hausmann dadaistak fotomuntaketa artistikoaren aurrekariak izan ziren. John Heartfield, kanpaina antibelista egiteko argazkigintzarekin hasi zen (nazien kontrako propaganda bat bultzatuz). Harekin batera, Paul Citroën, George Grosz, Hannah Höch etab-ek fotomuntaketa sortu zituzten.

Estatu Batuetan argazkilari gehien egin zituena Alfred Stieglitz izan zen. New York hiriko "Camera Work" aldizkaria eta 291 galeriaren laguntzaz bultzada ikusgarria eman zion argazkigintzari, eremu modernora eramaten.

Surrealismoak ere, argazkigintzaren garrantzia aintzat hartu zuen. "La Revolution Surréaliste" aldizkarian Atget-en argazkiak argitaratu ziren. Surrealistak Atget-en

lanetan baliabide berriak topatzen hasi ziren. Ondoren, talde honek Henry Cartier-Bresson-en lehendabiziko argazkiak sustatu zituen. Magritte eta Raoul Ubac bezalako margolariak argazkigintza ere erabili zuten, baina taldeko artistarik inportanteena Man Ray izan zen, ibilbide luzea izan zuelako argazkigintzaren inguruan. Bere rayogramak oso ezagunak dira, emultsionatutako paperen gainean jartzen baitzituen objektuak.

Sobiet Batasunean eta konstruktibismoaren jaiotzarekin batera, bi artista garrantzitsu aurki daitezke: Alexander Rodchenko eta El Lissitsky. Lehendabizikoak fotomuntaiarekin egin zuen lan Maiakovski-ren poemak ilustratzeko. Rodchenko-ren teknikaren ezaugarriak nabarmenena hiri-paisaien ikuspegi oblikuoak izan ziren (garaiko errusiar zineman ikusi ahal izan zen bezala). El Lissitsky-ren lanak suprematismorantz jotzen zuten eta Bauhaus-ekin kontaktuan egon zen. Argazkigintzarekin egindako proiektu esperimentalak desagertzen joan ziren erregimen estalinistak proposatutako erreialismo soziala finkatu zenean.

Alemanian, Weimarren Errepublikan, Bauhaus arte-eskola aurki daiteke. Bauhaus-eko argazkilari inportantenetariko bat Lazlo Moholy-Nagy hungariarra zen. Honek aukera guztiak landu zituen, esatearren: fotogramak, esposaketa bikoitzak, pikatuak etab. Urte batzuen buruan Estatu Batuetara abiatu zen eta Chicagoko Bauhaus-en irakasle izan zen.

Abangoardiarekin batera, argazkigintza azalpen artistiko bide moduan ikusten hasi zen, eta XX. mendeko mugimendu guztietara agertu zen lotuta.

GAIARAKO ARTELAN INTESGARRIAK

ANTON BRAGAGLIA

- “Typist (Dattilografa)” (1911)
- “Emakumearen erretratu fotodinamikoa” (1924)

LUIGI VERONESI

- “Fotogramak” (20.hamardatik aurrera)

ALVIN LANGDON COBURN

- “Vortographs” (1917-1919)

CHRISTIAN SCHAD

- “Schadographs” (1918-1920)

JOHN HEARTFIELD

- “Fotomuntaketak” (20.eta 30.hamarkadak)

RAOUL HAUSSMANN

- “Fotomuntaketak” (1927.urtetik aurrera)

EUGENE ATGET

- “Erakusleioa” (1910)
- “Corsets, boulevard de Strasbourg” (1912)
- “La Villette, rue Asselin, fille publique faisant le quart devant sa porte” (1921)

HENRY CARTIER-BRESSON

- “Saint-Lazare” (1932)
- “Hyeres” (1932)
- “Italia” (1933)
- “Bartzelona. Auzo txinatarra” (1933)

RAOUL UBAC

- “Dali’s Rainy Taxi” (1938)
- “André Masson-en manikiaren burua” (1938)

MAN RAY

- “Maniki” (1917)
- “Rayogramak” (20.hamarkada)
- “Duchamp-en erretratua” (1924)
- “Le violon d'Ingres (Kiki)” (1924)
- “Max Ernst” (1934)
- “Musua” (1935)
- “Malkoak” (1936)
- “Beltza eta zuria” (1936)

RODCHENKO

- “Fotomuntaketak” (20.hamarkada)
- “Lily Brik” (1924)
- “Balkoiak” (1925)
- “Espaloian” (1926)
- “Telefonoan” (1928)
- “Novodevichi-ren monastegiaren aldean” (1929)
- “Kikaretan sopa prestatuak” (1929)
- “Rodchenko balkoiaren atean” (1932)
- “Gaztea Leicarekin” (1934)

EL LISSITSKY

- “Autoerretratuak” (1924)
- “Fotomuntaiak” (20.hamarkada)

MOHOLY-NAGY

- “Fotogramak” (20.hamarkada)
- “Fotomuntaketak” (20.hamarkada)
- “Irrati-dorrearen bista” (1925)
- “Bauhaus-eko balkoiak” (1926)